

Sagardo Egunak hedabide askoren arreta bereganatu zuten

Mundu bat ibili zen Sagardo Egunean. Era berean, jai hau munduratzeko ahalegin berezia egin zuten hedabide askok. Telebista, prentsa eta irratiarekin batera, webgune askok XXV. Sagardo Egunaren berri eman zuten.

EITB entetik jarraipen zuzena egin zitzaion Sagardo Egunari. Telebista zein irrati bidezko konexio zuzenak egin ziren. Interneten ere, Sagardo Eguna albiste nagusia izan zen eitb24.com webgunean.

Zuzeneko konexioak egin zituen beste hedabide bat Herri Irratia izan zen.



PRENTSAN ETA INTERNETEN LUZE-ZABAL JASO ZEN SAGARDO EGUNA.

Biharamunean, prentsak luze-zabal jaso zuten Sagardo Eguna. Gara, Noticias de Gipuzkoa eta DV izan ziren tarte zabalena eskaini ziotenak. Azken biek, gainera, azalera eraman zuten Sagardo Egunaren albistea.

noaua.com webguneak lehen ordutik egin zuten jaiaren jarraipena

Gure webgunean jarraipen zehatza egin zitzaion Sagardo Egunari. Unean uneko ekitaldien berri eman genuen noaua.com webgunean. Sagardo Egunaren aitzakia-rekin gainera, "Argazkitegia" atala zabaldu genuen estraineko. Atari nagusian aurkituko duzu argazkitegiaren ikurra. Klik egin eta begibistan izango dituzu irudi ugari.



www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tarteak

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea

*Ikus itzazu
Sagardo Eguneako
irudiak
Argazkitegia*